

# COMPTE RENDU DE LA SEANCE DU CONSEIL MUNICIPAL DU 19 OCTOBRE 2015

## HERRIKO KONTSEILUAREN 2015eko URRIAREN 19ko BILKURAREN BILDUMA

### Présents / Hor zirenak : 12

MMES. BARBIER, ETCHART-DUHALDE, ETCHEVERRY, ECHEVERTZ, GARY, OXARANGO.

MM. GASTAMBIDE, BARNECHE, BISCAY, ETCHEBERRY, ETCHEGARAY, HERNANDEZ, SOULIGNAC.

### Absents excusés / Ezin etorria jakinarazia zuten : 1

M. BARNECHE.

#### 1 - Transfert de la compétence "Elaboration, révision et modification des documents d'urbanisme à l'échelle intercommunale" à la Communauté de Communes du Pays d'Hasparren

En préambule, Monsieur le Maire rappelle que tous les documents d'urbanisme doivent être "grenellisés". Pour Ayherre, la date limite de grenellisation est fixée au 31/12/2016.

"Grenelliser" le PLU, approuvé en juin 2013, revient à le réviser dans des échéances légales imparties. Ce calendrier de mise en compatibilité du PLU qui aurait dû débuter dès janvier 2015 pour une approbation au 31/12/2016 n'a pas été mis en place. Il est à souligner que le coût financier de cette mise en compatibilité a été évalué entre 40 et 50 000 €.

Il faut noter que de toute façon, révision ou pas, la compétence PLU sera transférée automatiquement aux communautés de communes le 27 mars 2017, sauf opposition d'au moins un quart des communes membres représentant au moins 20% de la population. Une fois la compétence acquise, la communauté de communes pourra élaborer un PLUi.

Le PLUi (Plan Local d'Urbanisme Intercommunal) permet une mutualisation des moyens et des compétences sur un territoire élargi, cohérent et équilibré. Il exprime la solidarité entre les communes, en permettant de réaliser des économies de consommation du foncier, de

#### 1 - "Herriarteko mailako hirigintza dokumentuen apailatzeko, berrikusteko eta aldatzeko" eskumena Hazparneko Lurraldea Herri Elkargoari ematea

Hastapenean, Jaun Auzapezak oroitarazten du hirigintza dokumentu guziak «Grenelle» legeari egokitu behar zaizkiola. Aiherraren kasuan, «Grenelle» legeari egokitzeko epea 2016/12/31n bukatzen da.

2013ko ekainean onartu Hirigintza Tokiko Plana (PLU) «Grenelle» legeari egokitzeak erran nahi du legez emanak diren epeetan berrikustea. 2016/12/31n onartua izateko, Hirigintza Tokiko Planaren egokitzeko egutegiak 2015eko urtarrilean hasi beharko zuen. Egutegi hori ez da plantan emana izan. Azpimarratu behar da egokitze horren kostua 40 000 eta 50 000 €-ren artean estimatua izan dela.

Ohartu behar da zernahi gisaz, berrikusi ala ez, Hirigintza Tokiko Planaren eskumena herri elkargoari automatikoki emanen zaiela, 2017ko martxoaren 27an, salbu kide diren herrien gutienez laurden bat kontra baldin bada, bizilagunen gutienez % 20 ordezkaturik. Eskumena bildu ondoan, herri elkargoak Herriarteko Hirigintza Tokiko Plan bat ontzen ahalko du.

Herriarteko Hirigintza Tokiko Planaren (Plan Local d'Urbanisme Intercommunal) bidez, baliabideak eta eskumenak lurralde zabalago, koherenteago eta orekatuago batean elkartzen ahal dira. Herrien

valoriser les qualités et atouts du territoire (patrimoine, culture...), de renforcer le poids des projets portés par les assemblées locales.

Il est à souligner que le Maire garde la maîtrise en matière de délivrance des autorisations d'urbanisme. Autre précision : l'Etat apporte son soutien financier aux EPCI qui engagent une démarche d'élaboration d'un PLUi.

Lors de sa séance en date du 29 septembre dernier, le Conseil Communautaire de la Communauté de Communes du Pays de Hasparren a délibéré pour prendre la compétence « Elaboration, révision et modification des documents d'urbanisme à l'échelle intercommunale ».

A leur tour, les conseils municipaux des communes membres de la Communauté des Communes du Pays d'Hasparren sont appelés à statuer sur ce transfert de compétence.

Le Conseil Municipal, invité à se prononcer sur la question, a approuvé à l'unanimité le transfert de la compétence « Elaboration, révision et modification des documents d'urbanisme à l'échelle intercommunale » à la Communauté de Communes du Pays de Hasparren.

## **2 - Participation à l'OGEC de l'école privée année 2015/2016 et régularisation de la mise à disposition de leur salarié pour les activités périscolaires 2014/2015.**

Le Conseil Municipal, après en avoir délibéré, décide de verser à l'O.G.E.C de l'école privée d'Ayherre, sur la base du coût annuel d'un enfant à l'école publique, soit 638.00 €, la somme de 12 122.00 € pour l'année scolaire 2015/2016 et de lui rembourser également la somme de 1400.00 € afférente à la mise à disposition de leur salarié pour le temps réservé aux activités périscolaires.

De plus, par souci de simplification, il a été décidé que pour chaque année civile, l'OGEC de l'Ecole privée bénéficiera d'une avance de subvention correspondant à 50 % du montant versé l'année précédente.

## **3 - Subventions aux associations année 2015**

Le Conseil Municipal, avec 10 voix pour et 2

arteko elkartasuna erakusten du, lurren erabiltzeko moldean ekonomiak egiteko, lurraldearen kalitateak eta abantailak (ondarea, kultura...) agerian ezartzeko eta tokiko biltzarrek eramaten dituzten proiektuen pisuaren handitzeko ahala ematen du. Azpimarratu behar da Auzapezak nagusitasuna atxikitzen duela hirigintza baimenen ematearen alorrean. Gauza bat oraino: Estatuak diru laguntza bat ematen die Herriarteko Hirigintza Tokiko Planaren apailatzeko urratsak ematen dituzten Herriarteko Lankidetzako Erakunde Publikoiei (EPCI).

Joan den irailaren 29ko bilkuran, Hazparneko Lurraldea Herri Elkargoko Kontseiluak deliberatu du "Herriarteko mailako hirigintza dokumentuen apailatzeko, berrikusteko eta aldatzeko" eskumenaren hartzeko.

Beren aldian, Hazparneko Lurraldea Herri Elkargoko kide diren herrietako kontseiluei eskumen horren emateari buruz erabakitzea galdegina zaie.

Herriko Kontseilua, horri buruz iritzia ematera gomitaturik, "Herriarteko mailako hirigintza dokumentuen apailatzeko, berrikusteko eta aldatzeko" eskumena Hazparneko Lurraldea Herri Elkargolari ematea onetsi du, aho batez.

## **2 - 2015/2016 urtean eskola pribatuko OGEC egituran parte hartzea eta haren langilearen egoera erregulartzea, 2014/2015 urtean eskolaldi inguruko aktibitateetan ari izan baita.**

Herriko Kontseiluak, deliberatu ondotik, erabaki du Aiherrako eskola pribatuko O.G.E.C egiturari 12 122.00 €-ren ematea, 2015/2016 eskola urtearendako. Horretarako, eskola publikoko haur batek ekartzen duen urteko gastuan oinarritu da, heldu baita 638.00 €. Horrez gain, 1400.00 €-ko saria itzuliko dio, eskola pribatuko langilea eskolaldi inguruko aktibitateetan ari izan baita.

Gainera, sinplifikatzeko gisan, erabaki da, urte zibil bakoitzarendako, eskola pribatuko OGEC egiturak diru laguntzaren parte bat aitzinetik eskuratuko duela, erran nahi baita aitzineko urteko diru laguntzaren % 50.

## **3 - Elkarteei 2015ean eman diru laguntzak**

Herriko Kontseiluak, 10 kidek alde eta 2k

contre, a approuvé la proposition que seules les associations présentant un intérêt local, les écoles primaires communales (privée, publique) et l'ikastola d'Hasparren, pourront prétendre à une aide financière de la Commune, et décidé par conséquent le versement d'une subvention aux associations ci-après :

EZKIA IKASTOLA (475 € par enfant)	5 225,00 €
ABARRATIA	500,00 €
IRULEGIKO IRRATIA	150,00 €
ACCA LEHENA	210,00 €
APE ECOLE PRIVEE (19 €/enft)	361,00 €
APE ECOLE PUBLIQUE (19 €/enft)	646,00 €
CATM - PG d'AYHERRE	105,00 €
HERRIA Journal	150,00 €
SOS LABORARI	180,00 €

kontra bozkaturik, Herriaren diru laguntza tokiko interesa duten elkarteei, herriko lehen mailako eskolei (pribatua, publikoa) eta Hazparneko ikastolari bakarrik emateko proposamena onartu du. Ondorioz, diru laguntza ondoko elkarteei ematea erabaki du:

Il a été précisé que le versement des subventions sera conditionné par la présentation des comptes de résultats moral et financier, notamment.

Zehaztu da, diru laguntzaren eskuratzeko, diru eta moral alorretako emaitzen kontuak aurkeztu beharko direla, bereziki.

#### 4 - Bourses communales 2014/2015

Le Conseil Municipal a décidé d'accorder une bourse communale pour l'année universitaire 2014/2015, dont le montant représente 20 % du montant attribué par le Département, aux étudiants de la Commune ci-après :

#### 4 - 2014/2015 urteko herriko ikasle laguntzak

Herriko Kontseiluak erabaki du 2014/2015 urte unibertsitarioko ikasle laguntza ematea. Laguntza hori Departamenduak ematen duen laguntzaren % 20ren heinekoa izanen da. Herriko ondoko ikasleek eskuratuko dute:

➤ DUHALDE Mikele .....	100.00 €
➤ MONGABURE Argi....	90.00 €
➤ MONGABURE Xan....	78.00 €
➤ LOYATHO Maider.....	33.00 €
➤ SARAGUETA Marie...	33.00 €

#### 5 - Travaux voirie programme 2015 : assistance technique et administrative par le Service Technique Intercommunal de l'Agence Publique de Gestion Locale

Dans le cadre des travaux de voirie 2015, il a été décidé de confier au Service Voirie et Réseaux Intercommunal de l'Agence Publique de Gestion Locale la mission d'assistance technique et administrative. Ainsi, le service serait mis à la disposition de la Commune pour une durée de 25 ½ journées. Il apporterait son concours notamment

#### 5 - Bideko lanak, 2015eko programa: Tokiko Kudeaketako Agentzia Publikoaren Herriarteko Zerbitzu Teknikoak eman laguntza tekniko eta administratiboa

2015eko bideko lanendako, erabaki da laguntza tekniko eta administratiboaren eginkizuna Tokiko Kudeaketako Agentzia Publikoaren Herriarteko Bide eta Sare Zerbitzuaren esku uztea. Horrela, zerbitzua Herriaren eskuko utzia litzateke, 25 egun erdiz. Laguntza ekarriko luke bereziki obren segimenduaren eta kontrolaren mailan, eta

au niveau du suivi et du contrôle des travaux, et l'assistance à la réception des ouvrages réalisés. Le prix de la demi-journée s'établit à 238.00 €.

Le Maire a été autorisé à signer la convention à passer entre la Commune et l'Agence Publique de Gestion Locale.

## 6 - Décision modificative n° 1 au budget principal

Le Conseil Municipal a adopté la décision modificative n° 1 au budget de la régie de transport scolaire 2015, traduite par les écritures suivantes :

FONCTIONNEMENT / FUNTZIONAMENDUA	
<b>DEPENSES</b>	
611 - Contrat de prestations de service	4000
61551 – Matériel roulant	5000
6227 – Frais d'actes et de contentieux	-2000
6228 - Divers	-2000
6554 – Contributions aux organismes de regroupement	2500
657364 – A caractère industriel et commercial	6000
TOTAL	<b>13500</b>
<b>RECETTES</b>	
7351 – Taxe sur l'électricité	13500
TOTAL	<b>13500</b>
INVESTISSEMENT / INBESTIMENDUA	
<b>DEPENSES</b>	
165 – Dépôts et cautionnements reçus	2000
2031 - Opération 163 - Etude urbanistique	-19000
2313 – Opération 156 – Réhabilitation trinquet	-6000
2315 -Opération 158 – Aménagement bourg/café-boulangerie	15000
2315 - Opération 143 -Voirie	16000
TOTAL	<b>8000</b>
<b>RECETTES</b>	
10223 - TLE	4000
165 – Dépôts et cautionnement reçus	4000
TOTAL	<b>8000</b>

## 7 - Acquisition véhicule destiné au transport scolaire : résultats de la consultation

Dans le cadre des délégations consenties par le Conseil Municipal et notamment celle de prendre toute décision concernant la passation de marchés d'un montant inférieur à 90 000 € HT, M. Le Maire informe l'assemblée du résultat de la consultation lancée pour l'acquisition d'un véhicule de 9 places, destiné au transport scolaire. Trois propositions ont été reçues:

- Renault (baskoto) : 20 568.59 € HT, reprise : 4 800.00 € TTC,
- Peugeot Gambade : 20 070.17 € HT, reprise : 5 300.00 € TTC

burutu obren bururapenean lagunduz. Egun erdiaren prezioa 238.00 €-koa da.

Auzapezari baimena eman zaio Herriaren eta Tokiko Kudeaketako Agentzia Publikoaren artean egin behar den hitzarmenaren izenpetzeko.

## 6 - Buxet nagusiaren aldatzeko 1. erabakia

Herriko Kontseiluak eskola garraioko konpainiaren 2015eko buxetaren aldatzeko 1. erabakia onartu du, ondotik idatzia den bezala:

## 7 - Eskola garraioaren egiteko ibilgailuaren erostea: kontsultaren emaitzak

Herriko Kontseiluak eman ahalmenen alorrean, bereziki 90 000 € zergarik gabe (HT) baino gutiagoratu erabakitzekean, Jaun Auzapezak biltzar jakinarazten dio eskola garraioaren egiteko 9 le ibilgailu baten erosteari buruz egin kontsultaren emaitza Hiru proposamen errezibituak izan dira:

- Renault (baskoto): 20 568.59 € zergarik gabe (HT), zaharraren gibelera hartzea: 4 800.00 € zergak barne (TTC),
- Peugeot Gambade: 20 070.17 € zergarik gabe (HT), zaharraren gibelera hartzea: 5 300.00 € zergak barne (TTC),

- Fiat (Arpoulet Utilitaires – Marmande) : 28 122.50 € HT, reprise : 4000.00 € TTC.

La proposition de Peugeot, la moins disante, pour un véhicule Boxer 9 places, a été retenue pour un montant TTC de 18 069.26 €.

## 8 - Décision modificative n° 1 au budget de la régie de transport scolaire

Le Conseil Municipal a adopté la décision modificative n° 1 au budget de la régie de transport scolaire 2015, traduite par les écritures suivantes :

FONCTIONNEMENT / FUNTZIONAMENDUA	
<b>DEPENSES</b>	
615 – Entretien et réparations	-150
635 – Autres impôts, taxes et versements assimilés	300
6450 – Charges de sécurité sociale et de prévoyance	150
628 - Divers	200
023 – Virement à la section d'investissement	5500
TOTAL	<b>6000</b>
<b>RECETTES</b>	
74 - Subvention Commune	6000
TOTAL	<b>6000</b>
INVESTISSEMENT / INBESTIMENDUA	
<b>DEPENSES</b>	
2156 – Matériel spécifique d'exploitation	5500
TOTAL	<b>5500</b>
<b>RECETTES</b>	
021 – Virement de la section de fonctionnement	5500
TOTAL	<b>5500</b>

## 9 - Avis simple sur le projet du schéma département de coopération intercommunale

La réforme de l'organisation territoriale du pays visant à simplifier et à rationaliser les institutions locales, matérialisée par la loi Notre du 7 août 2015 a confié aux préfets le soin de préparer et de mettre en œuvre un schéma départemental de coopération intercommunale.

L'objectif de ce schéma est de renforcer les solidarités territoriales pour accompagner les communes et leurs établissements publics dans la mise en œuvre de leurs projets de territoire et favoriser une meilleure gestion et mutualisation de leurs services.

Il est proposé sur le territoire du Pays basque la fusion des 10 EPCI à fiscalité propre qui

- Fiat (Arpoulet Utilitaires – Marmande): 28 122.50 € zergarik gabe (HT), zaharraren gibelera hartzea: 4000.00 € zergak barne (TTC).

Peugeot kontzesionarioaren proposamena, merkeena, atxikia izan da. 9 lekuko Boxer ibilgailua da, 18 069.26 €-ko prezioan, zergak barne (TTC).

## 8 - Eskola garraioko konpainiaren buxetaren aldatzeko 1. erabakia

Herriko Kontseiluak eskola garraioko konpainiaren 2015eko buxetaren aldatzeko 1. erabakia onartu du, ondotik idatzia den bezala:

## 9 - Herriarteko kooperaziorako departamendu eskema proiektuari buruzko iritzi sinplea

Tokiko erakundeen sinplifikatzeko eta arrazionalizatzeko xedea duen herriaren lurralde antolaketaren erreforma, 2015eko agorrilaren 7ko Notre izeneko legeak gauzaturik, prefeten esku utzi du herriarteko kooperaziorako departamendu eskema bat plantan ezartzea.

Eskema horren helburua da lurraldeko elkartasunen indartzea, herriak eta haien erakunde publikoak beren lurralde proiektuen obratzera laguntzeko eta beren zerbitzuen hobeki kudeatzea eta elkartzea sustatzeko.

Euskal Herriko lurraldean, proposatua da zerga sistema propioak dituzten 10 Herriarteko

le composent pour constituer une communauté d'agglomération Pays basque.

Il a été rappelé que ce projet est défendu par les principales institutions de ce pays, tous partis politiques confondus, les arguments majeurs étant :

- Un pouvoir local fort : le pays basque deviendrait ainsi la 2<sup>ème</sup> agglomération au sein de la nouvelle grande région d'Aquitaine ;
- Une ambition pour le pays par une mise en œuvre de politique publique dans les domaines du foncier, de l'agriculture, des transports collectifs, de la gestion des cours d'eau, du traitement des déchets ménagers...,
- et enfin, une simplification avec principalement la fusion des intercommunalités en une entité et la réduction du nombre de syndicats.

Le Conseil Municipal, invité à se prononcer sur la proposition d'organisation faite par le Préfet des Pyrénées Atlantiques et après en avoir débattu, a émis un avis favorable au projet de création d'une communauté d'agglomération Pays Basque.

### **Questions diverses**

#### **Interdiction accès à la carrière du bourg**

A plusieurs reprises, il a été constaté l'abandon de déchets à l'ancienne carrière. Celle-ci n'a pas vocation à être une déchetterie et ce site est fortement dégradé par ces dépôts sauvages. Le Conseil Municipal a donc décidé d'interdire à toute personne non autorisée l'accès à l'ancienne carrière du bourg, propriété communale.

#### **Cimetière : reprise des sépultures en terrain commun**

M. le Maire informe que par arrêté du 13 octobre 2015, les tombes en terrain commun (celles qui ne bénéficient pas de concession) et en état d'abandon manifeste, pourront être reprises par la Commune le 1er mars 2016.

Ainsi, sur les tombes précitées, une copie de l'arrêté y sera apposée.

Lankidetzako Erakunde Publikoen (EPCI) bat egitea, Euskal Herriko hirigune elkargo baten osatzeko.

Oroitarazi da herriko erakunde nagusiek, alderdi politiko guztiak bildurik, proiektu hori defendatzen dutela, argumentu nagusiak ondokoak izanki:

- Tokiko botere azkar bat: gisa hortan, euskal herria Akitania handia eskualde berriko 2. hirigune bilakatuko litzateke;

- Herriaren aldeko anbizioa, lurraren, laborantzaren, garraio publikoen, erreken kudeantzaren, etxeko hondakinen tratamenduaren... alorretan politika publiko bat obratuz,

- Eta azkenik, sinplifikatze bat, bereziki herriarteko egiturak erakunde bakar batean bilduz eta sindikaten kopurua ttipituz.

Pirinio Atlantikoetako Prefetak egin proposamenari buruz iritzia ematera gomitaturik eta horretaz eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak aldeko iritzia eman dio Euskal Herriko hirigune elkargo baten sortzeko proiektuari.

### **Gainerako arazoak**

#### **Herri barneko harrobian sartzea debekatzea**

Behin baino gehiagotan, ohartu gara harrobian hondakinak utziak izan zirela. Harrobia ez da hondakindegia bat eta hondakin horiek lekua azkarki andeatu dute. Beraz, herria harrobi horren jabe izanik, Herriko Kontseiluak erabaki du herri barneko harrobian sartzea baimenik gabeko pertsona orori debekatzea.

#### **Hilerria: lur komunetan diren hilobien berriz hartzea**

Jaun Auzapezak jakinarazten du 2015eko urriaren 13ko erabakiaren ondorioz, Herriak berriz hartzen ahalko dituela lur komunetan diren hilobiak (kontzesiorik ez dutenak) eta bere gisa utziak izan direla argiki ageri dutenak, 2016ko martxoaren 1.ean.

Beraz, erabakiaren kopia bat ezarria izanen da gorago aipatu hilobietan.

Fait à AYHERRE, le 26 octobre 2015

AIHERRAN egina, 2015eko urriaren 26an

Le Maire, Auzapeza,

Arño GASTAMBIDE